

## 5. GAIA. Jaiokuntza eta Ugalkortasuna

5.1- Jaiokuntza eta ugalkortasunaren definizioa

5.2- Ugalkortasunaren neurriak

5.3- Ugalkortasunaren eragileak eta ondorioak.  
Azalpen ereduak

### 5.1- Jaiokuntza eta ugalkortasuna

- Kontzeptu horiek ez dira sinonimoak:
  - Jaiokuntza: jaiotza gertaeraren maiztasuna neurtzen du populazio osoarekiko.
  - Ugalkortasuna: jaiotza gertaeraren maiztasuna neurtzen du adin ugalkorreko populazioarekiko.
    - Adin ugalkorreko epealdia emakumeengan manarkiarekin (lehengo hilerokoa) hasi eta menopausiarekin bukatzen da (15-49).

## Beste kontzeptu batzuk

- **Ezkontza barneko Ugalkortasuna:** Ezkontza edo egitezko batura baten barruan izandako seme-alabak.
- **Naturazko Ugalkortasuna:** Berezko ugalkortasuna; honen tamaina gutxiarazteko kanpo edo barne elementurik erabiltzen ez direnean.
- **Kontrolpeko Ugalkortasuna:** Emakumeek, gizonek edo bikoteek ugalkortasunaren magnitudea urriarazteko, nahitako elementu edo portaerak erabiltzen dituztenean.

## 5.2- Ugalkortasunaren neurriak

- Bi analisien mota:
  - Zeharkakoa: urte berean adin ezberdinetako emakumeekin
  - Longitudinala: belaunaldi berbereko emakumeekin baina bere adin ugalkor ezberdinarekin.
- Terminologia:
  - t: urte
  - s: sexua
  - x: adina
  - J: bizirik jaioak
  - $J_f$ : emakumezkoak diren bizirik jaioak
  - $P_{t/06/30}$ : epealdi erdiko populazio
  - $P_f$ : populazio femeninoa

## Jaiotza tasa gordina

- Urte jakin bateko jaiotza-kopuruaren eta urte horretako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa.

$$JTG_t = \frac{J_t}{\frac{1}{2}(P_t + P_{t+1})} \times 1000$$

## Ugalkortasun tasa orokorra

- Urte batean emandako jaiotzak ugalkorreko adinean dauden emakumeekin erlazionatzen duena.

$$UTO_t = \frac{J_t}{P_{f,15-49,t} / 06 / 30} \times 1000$$

## Ugalkortasun tasa espezifikoak

- Adin tarte bateko amak izan dituzten seme-alabak adin tarte berdineko emakume guztiekin.


$$UTE_{t,x} = \frac{J_{t,x}}{P_{f,t/06/30,x}} \times 1000$$

## Ugalkortasun indize sintetikoa

- Emakume hipotetiko batek bere ugalkortasun-aldia bukatzean izango lukeen ume-kopurua adierazten du, baldin eta aldi horretan zehar bere portaera bat baletor, adin bakoitzean, adinkako ugalkortasun-tasa espezifikoaren serieak adierazten duenarekin.

$$UIS_t = \frac{\sum UTE_{t,x}}{1000}$$

## 2000. urteko jaiotzak



Iturria: World mapper. Urtea 2000.


## Jaiotza-tasak

### MAYORES Y MENORES TASAS DE NACIMIENTOS

Rango	Territorio	Valor	Rango	Territorio	Valor
1	Niger	52	191	Alemania	9
2	Angola	50	192	Italia	9
3	Guinea Bissau	49	193	Lituania	9
4	Spmania	49	194	Bielorrusia	9
5	República Democrática del Congo	48	195	Federación Rusa	9
6	Uganda	48	196	República Checa	9
7	Mali	47	197	Ucrania	9
8	Sierra Leona	47	198	Eslovenia	9
9	Burkina Faso	46	199	Latvia	8
10	Chad	46	200	Bulgaria	8

*nacimientos por cada 1000 personas por año*

### TASAS DE NACIMIENTOS POR REGIONES



Iturria: World mapper. Urtea 2000.

### Ugalkortasun Indize Sintetikoa, Autonomi Erkidegoen arabera. 1975-2005

	1975	2000	2005
Andaluzia	2,84	1,36	1,47
Aragoi	2,45	1,13	1,26
Euskal AE	2,68	1,04	1,20
Kanariak	2,63	1,31	1,20
Kantabria	2,32	1,06	1,21
Gaztela Leon	2,38	1,00	1,09
Gaztela Mantxa	2,53	1,29	1,34
Katalunia	2,92	1,28	1,46
Ceuta	3,07	1,69	1,93

### Ugalkortasun Indize Sintetikoa, Autonomi Erkidegoen arabera. 1975-2005

	1975	2000	2005
Madrilgo Autonomia Erkidegoa	2,86	1,25	1,38
Nafarroako Foru Erkidegoa	2,66	1,21	1,35
Valentziako Erkidegoa	2,80	1,26	1,36
Espainia	2,91	1,24	1,35
Extremadura	3,20	1,29	1,28
Galizia	2,77	0,97	1,02
Balear Uharteak	3,13	1,41	1,34
Errioxa	2,41	1,16	1,34
Melilla	1,95	2,02	1,95
Asturiasko Printzerria	2,38	0,86	0,96
Murtzia	3,23	1,47	1,59

## Amatasunaren batez besteko adina

- Amek ugalkortasun-taula orokor baten arabera bizirik jaiok izateko unean, hau da, heriotzarik gabeko kasuan, duten batez besteko adina.

$$\bar{a}_t = \frac{\sum \left(x + \frac{n}{2}\right) \times UTE_{t,x}}{\sum UTE_{t,x}}$$

Non  $\left(x + \frac{n}{2}\right)$  adin-lerrun bakoitzeko batez besteko balioa

Ariketa. Kalkulatu UIS eta  $\bar{a}$

Adina	UTE <sub>t,x</sub>
15-19	8,0
20-24	104,5
25-29	190,7
30-34	223,0
35-39	202,0
40-44	113,8
45-49	16,5

## Beste adierazle espezifiko batzuk

- Emakume ezkondui dagokienez:
  - Ezkontzako ugalkortasun tasa orokorra: EUTO
  - Ezkontzako ugalkortasun tasa espezifikoak: EUTE
  - Ezkontzako ugalkortasun indize sintetikoa: EUIS
- Emakume ez-ekonduei dagokienez:
  - Ez-ekontzako ugalkortasun tasa orokorra: EEUTO
  - Ez-ekontzako ugalkortasun tasa espezifikoak: EEUTE
  - Ez-ekontzako ugalkortasun indize sintetikoa: EEUIS

## Ugalketa tasa gordina

- Emakume hipotetiko batek bere ugalkortasun aldia bukatzean izango lukeen alaben kopurua adierazten du.

$$UgTG_t = \frac{\sum UTE_{t,x}^f}{1000}$$

- Jaiotza femenino eta maskulinoen arteko proportzioa konstante bat denez, sex ratioarekin biderkatu ahal dugu (ad. Sex-ratioa = 105).

$$UgTG_t = \frac{100}{(105 + 100)} \times UTO_t$$



## Ariketa. Jaiokuntza eta ugalkortasuna

Adin taldeak	Jaiotzak	Nesken jaiotzak	Populazio femeninoa
15-19	14.458	6.989	1.137.804
20-24	48.260	23.323	1.392.363
25-29	115.118	55.862	1.804.770
30-34	189.191	91.684	1.962.458
35-39	105.657	51.086	1.869.363
40-44	18.450	8.997	1.801.998
45-49	1.183	591	1.644.258

## Ariketa. Jaiokuntza eta ugalkortasuna

- Jaiotza guztiak: 492.527
- Urte erdiaren populazioa: 45.679.280
- Urte erdiaren Populazio femeninoa 15-49 urte: 11.613.014
  
- Kalkulatu:
  - Jaiotza tasa gordina
  - Ugalkortasun tasa orokorra
  - Ugalkortasun tasa espezifikoak
  - Ugalkortasun indize sintetikoa
  - Amatasun batez besteko adina
  - Ugalketa tasa gordina

### 5.3- Ugalkortasunaren eragileak eta ondorioak

- Ugalkortasunarengan eragin duten funtsezko faktoreak natura desberdineko dira:
  - Faktore biologikoak: aldaketa espazialak urriak dira:
    - Ugalkorreko aldiaren iraupena: manarkiarekin hasten da eta menopausiarekin bukatzen da.
    - Behin-behineko edo behi-betiko antzutasuna
    - Epealdi antzuak: erditze arteko epea, edoskitzaroa, e.a.
    - Utero-barruko hilkortasuna
    - Ugalkorreko adinean emakumeen hilkortasuna

### Ugalkortasunaren faktoreak

- Faktore sozialak, kulturalak eta ekonomikoak: eragin handia dute ugalkortasunaren aldaketa espazialengan:
  - Antisorgailuen erabilpena edo abortuari buruzko legeria.
  - Jaiotasunaren aldeko edo aurkako kanpaina instituzionalak.
  - Erlijio sineskerak, oro har jaiotza eta moral tradizionalaren aldekoak .
  - Ezkontza adinaren jarraibideak.
  - Emakumearen jokabidearen gaineko ikuspegi soziala; amatasun eta familiara murriztuta edo lan merkatu eta gizarte ekintzan integratua.
  - Emakumeen jarduera ekonomikoa.
  - Errenta maila.
  - Egoitzaren lekua.

## Ugalkortasunaren ondorioak

- Jaiokuntzan
- Populazioaren hazkundean
- Populazioaren zahartze-prozesuan
- Sexu araberako osaeran
- Jarduera tasan